

Hezkuntzak ez du telefonoa hartzen



ENEKO OLASAGASTI
ANTZERKIGILEA

Urte askotako borrokari esker lortu zen Arte Eszenikoetako Goi Mailako Eskola: Dantzerti. Baina eskola hori sortu aurretik inork antzezenaren mundura inguratu nahi bazuen hainbat herri eta hiritan zeuden Antzerki Eskola xumeetara joatea beste erremediorik ez zuen. Lan beltza egin dute urtetan, gero oholtza gainean ikusten ditugun aktoreei prestakuntza eta eskarmentua eskaintzen. Garai bateko Basauriko eskolatik hasi eta Euskal Herriko geografian banatuta daudenetara: Gasteizko TAE, BAI, Artebi, Getxoko eskola... Eta seguru baten bat ahazten dudala.

Ondo gogoan dut Donostiako TAE sortu genuen garaia. 90eko hamarkada zen eta Antzerti eskola itxi berritan zegoen. Itxiera horrek ekarri zuen hutsunea bete nahian sortu genuen, eta horretarako hiriko hainbat nukleotako jendea elkartu ginen. Urte luzez antzezena ikasteko aukera bakarra zen Donostian eta ia Gipuzkoan ere. Dantzerti sortzean ere berau hornitzeko harrobi paregabea izan dira eskola guzti horiek. Hainbat erakundetatik laguntzak jasoaz, nagusiki Eusko Jaurlaritzako Kultura Saitetik.

Baina goizetik gauera, Antzerki Eskoletako arduradunak bildu zituen Kultura Sailak eta haien ardurapeko izateari utziko ziotela esan zitzaizen, hurrengo

ikasturtetik aurrera. Beraz, diru-laguntzarik ez zuten jasoko. Nonbait, Hezkuntza Sailaren ardura izatera pasako ziren. Hezkuntza Sailak horri buruz ezertxo ez bazekien ere. Hala jakinarazi ziguten haiekin izandako bilera batean. Ederra komunikazioa bi departamentuen artean.

Bestalde, Euskal Aktoreen Bata-sunetik (EAB) 1992ko urriaren 27ko 289/1992 dekretua berridazteko eskaera luzatu genion Hezkuntza Sailari. Dekretu horretan Udal Dantza eta Musika Eskolen funtzionamendua arautzen zen. Gure eskaera: eredu horretan Antzerkia sartzeko eskola horiek benetako Arte Eszenikoetakoak bihurtuz (Antzerkia, Dantza eta Musika). Eskumena hori egiteko EAEn dago. Bilera horietako azkena duela urtebete egin genuen. Ordutik ezin departamenduarekin bildu gaia jorratzen segitzeko. Ez dakigu Kultura-koek haiekin hitz egiteko astirik izan duten urtebetean.

Ezin ukatu aukera paregabea dagoe-la, bai orain arteko Antzerki eskoletako egoera larriari irtenbidea emateko, baita behar bezalako Arte Eszenikoetako Eskolak edukitzeko ere. Azken batean Dantzertik nonbaitetik lortu beharko ditu eta ikasleak. Baina Hezkuntza Sailak ez du ardura hori hartu. Bueno, egia esan, telefonoa ere ez du hartzen. ●

Arzalpenak



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Aparkatu nahian, parkingean sartu naiz. Barruraino joan arren, ez dut leku librerik aurkitu. Aparkaleku estua da, eta buelta emateko maniobra asko egin behar izaten da. Ez zait inportat, direkzio lagundua izanda dena delako erraza. Jeurt egiten nabilela, gizonetako adinkide bat dut begira-begira, inguruko ibilgailu guztiak mailatzear banengo lez.

Zuzendu dut autoa beste leku batera joateko, eta bikote batek kotxea aterako duela abisatu dit. Hurrean jarri naiz, zain eta pozik.

Begira neukan gizona leihatilara gerturatu eta, irribarre batekin, hasi zait

esaten zelan egin behar nuen buelta errazago emateko, gidatzen jakingo ez banu lez.

Jator jokatu zuela pentsatu zuen, benetan, baina nik buruan jira-bueltak nerabilen Rebecca Solnitzen liburuaren izenburua: *Gizonek gauzak azaltzen dizkidate*. So-egile orojakilea andrazkoekin. Ni ezagutu barik eta nire esperientzia gidatzen jakin gabe atrebitu zen ez eskatutako aholkua botatzen. Andre ezjakina baino ez zuen ikusi. Zeren aholku emailak nire edadeko gizon bati gomendioa horrela emango zion? Ez, ezta? Beraz, *mansplaninga* jasan nuen, *arzalpena*. ●